



ITZULERA-ZIURTAGIRIA

8/1994 Legeak, EUSKAL AUTONOMI ELKARTEAZ KANPOKO GIZATALDE ETA ETXEEKIKO HARREMANETARAKOAK, euskal gizataldeetako kideak nor diren zehazten du bere 3. atalean:

1.- *Euskal Herriko Autonomi Estatutuaren 7.2 atalean esaten den eran Estatutik kanpo bizi diren euskaldunak, bai eta beren ondorengoak ere.*

Hauxe dio Euskal Herriko Autonomi Estatutuaren 7.2 atalak: *“Atzerrian bizi direnek eta gauza bera berorien ondokoek hala eskatzen baldin badute, Euskal Herrian bizi diren egoiliarrek dituzten eskubide berberak izango dituzte, **baldin eta horien azken egoitza administratiboa Euskal Herrian izan bada, eta españatar naziotasunari eutsi badiote.**”*

8/1994 Legearen 3. ataleko bigarren puntuak dioenari jarraituz, hauek dira euskal gizataldeetako kideen beste bi kasuak:

2.- Euskadin jaio eta Espainiako gerra zibilaren ondorioz atzerrira eraman eta oraindik atzerrian bizi diren euskaldunak.

3.- *Euskal etxe aitortuetako bazkideak.*

Zehaztu beharra dago “gerrako umeak” deritzenei egiten diela erreferentzia bigarren puntuak (Euskadin jaio eta Espainiako gerra zibilaren ondorioz atzerrira eraman eta oraindik atzerrian bizi diren euskaldunak), hau da, arrazoi naturalak tarteko (adin handiko pertsonak direlako eta heriotza-tasa handiko gizataldea delako) galtzear den kolektibo bati; beraz, emigratutako euskal herritarren itzulera errazteari begira, ez da esanguratsua gizatalde hori.

Horrez gain, 8/1994 Legeak, EUSKAL AUTONOMI ELKARTEAZ KANPOKO GIZATALDE ETA ETXEEKIKO HARREMANETARAKOAK, 3. ataleko 1. eta 2. azpiataletan aipatzen diren euskal gizataldeetako kideen aldeko zerbitzuak zehazten ditu 11. atalean. Hauxe dio, zehazki, 8/1994 Legeko 11. atalak:

1. 3. ataleko 1 eta 2. azpiataletan aipatzen diren pertsonak, Autonomi Elkartera itzuli eta kasuan kasuko programetan eskatzen diren gainontzeko baldintzak betetzen badituzte, osasun eta gizarte-laguntza jaso ahal izango dute, **aldez aurretik Autonomi Elkartearen bizi izan direla egiaztatu beharrik izan gabe.** Baina bi baldintza bete beharko dituzte:
 - a) **Estatutik kanpo** bizi izandakoak izan beharko dute, jarraian eta justu itzuli aurreko denbora tartean, emigratzaile ez direnei gutxienez eskatzen zaien besteko denbora tartean.
 - b) *Itzuli eta gero beren bizilekua Euskal Autonomi Elkartearen izan beharko dute.*
2. *Era berean, gizarte-laguntzako etxebizitzak banatzeko deialdian, 3. ataleko 1 eta 2. azpiataletan aipatzen diren pertsonak, EAera itzuli eta deialdirako gainontzeko baldintzak betetzen badituzte, ez*

zaie alde z aurretik izandako bizilekuari buruzko denborazko betebeharririk eskatuko eskabidea egin ahal izateko.

Benetan babesik gabe dauden pertsoneri lagundu behar zaienean, atzerritik itzultitako pertsona izatea merezimendutzat hartu ahal izango da eskabideak neurtzerakoan, edo etxebizitza horietako batzuk egoera horretan dauden pertsonentzat gorde ahal izango dira.

Laburbilduz: 8/1994 Legeak xedatzen duenez, alde z aurretik Euskal Autonomia Erkidegoan bizi izan direla egiaztatu beharrik izan gabe osasun eta laguntzen arloko zerbitzuak eskatzeko aukera (besteak beste, Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta edo beste zerbitzu batzuk eskatzeko eskubidea izateko hiru urtez errolatuta egoteko betekizuna alde batera uztea) **soilik EUSKAL AUTONOMI ELKARTEAZ KANPOKO GIZATALDE ETA ETXEEKIKO HARREMANETARAKO 8/1994 Legeko 3. ataleko 1 eta 2. azpiataletan aipatzen direnei aplikatuko zaie.**

Euskal etxe aitortuetako kideek (lege horretako 3. puntuokoe) zerbitzuak euskal etxeen bidez jasotzen dituzte, euskal etxeek diru-laguntzak jasotzen baitituzte.

Hortaz, atzerrian bizi diren euskal herritarrek (azken administrazio-egoitza Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrri batean eta espainiar naziotasuna) Euskadira itzultzen direnean:

Osasun eta gizarte-laguntzako zerbitzuak jaso ahal izango dituzte, **aldez aurretik Autonomia Erkidegoan bizi izan direla egiaztatu beharrik izan gabe**; baina, horretarako:

- a) Estatutik kanpo bizi izandakoak izan beharko dute, jarraian eta justu itzuli aurreko denbora tartean, emigratzaile direnei gutxienez eskatzen zaien besteko denbora tartean.
- b) Itzuli eta gero beren bizilekua Euskal Autonomia Erkidegoan izan beharko dute.

Era berean, gizarte-laguntzako etxebizitzak banatzeko deialdietan, **deialdirako gainerako baldintzak betetzen badituzte, ez zaie alde z aurretik izandako bizilekuari buruzko denborazko betebeharririk eskatuko eskabidea egin ahal izateko.**

Benetan babesik gabe dauden pertsoneri lagundu behar zaienean, atzerritik itzultitako pertsona izatea merezimendutzat hartu ahal izango da eskabideak neurtzerakoan, edo etxebizitza horietako batzuk egoera horretan dauden pertsonentzat gorde ahal izango dira.

Hori guztia aintzat hartuta, ondorioztatu daiteke atzerrian bizi diren euskal herritarrek, Euskadira itzultzen direnean, honako hauek frogatu behar dituztela, Euskadira itzuli eta, 8/1994 Legean zehazten denaren ildotik, goian adierazitako onurak eskuratu ahal izateko:

1. Atzerria emigratu aurretik, azken administrazio-egoitza Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrri batean izan dutela. Egiaztatzeko, dagokion errolatze-ziurtagiria aurkeztu beharko dute.
2. Espainiar naziotasunari eusten diotela. Horretarako, indarrean dagoen NAN agiriaren edo pasaportearen kopia aurkeztu beharko dute.
3. Estatutik kanpo bizi izan direla modu jarraitu batean eta justu itzuli aurreko denbora tartean, emigratzaile direnei gutxienez eskatzen zaien besteko denbora tartean. Indarreko pasaportearen kopia bat aurkeztuz egiaztatuko dute, sarrera eta irteerako zigiluak erakutsiz, justu Euskal Herrira itzuli aurreko garaian eta azken administrazio-egoitza utzi zutenetik atzerrian modu jarraituan

gutxienez hiru urteko egonaldia egiaztatzeko. Horrez gain, beste dokumentu batzuk ere eska edo aurkez daitezke (lan-kontratuak edo antzekoak) atzerrian modu jarraituan hiru urteko gutxienerako denboraldia egin dutela egiaztatzeko.

4. Itzuli eta gero beren bizilekua Euskal Autonomia Erkidegoan ezarri dutela. Egiaztatzeko, dagokion erroldatze-ziurtagiria aurkeztu beharko dute.

Hemen adierazten den helbide elektronikora bidal ditzakete euskal herritar horiek baldintzok frogatzeko erabil daitezkeen **agiri** horiek, bakoitzari dagokion **azalpen-memoriarekin** eta **datu pertsonalen fitxarekin** batera (izen-abizenak, posta-helbidea, telefonoa eta helbide elektronikoa): euskaletxeak@euskadi.eus

Eskatzen diren baldintza horiek betetzen badira, itzulera-ziurtagiri bat jaulkiko da, **aldez aurretik Autonomia Erkidegoan bizi izan direla egiaztatu beharrik izan gabe** osasun- eta gizarte-laguntzako zerbitzu batzuk eskatu ahal izateko (hau da, laguntza edo zerbitzu horiek eskatzeko eskubidea izango da, baina ez, nahitaez, jasotzekoa, laguntza eta gizarte-zerbitzuak emateko baldintzak ezartzen dituzten arauetan xede horretarako ezarritako betekizunen arabera egongo baita hori).